

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Arminon, Arraia Maeztu, Arratzua Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Burgelu, Vitoria-Gasteiz, Iruraiz, Kanpezu, Kuartango, Lantaron, Legutio, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Donemiliaga, Gaubea, Harana, Zanbrana eta Gesaltzako Udala partzuergokoak diren udalerrietako kontzejuetan 2024ko ekitaldiko lehen hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola

Arminon, Arraia Maeztu, Arratzua Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Burgelu, Vitoria-Gasteiz, Iruraiz, Kanpezu, Kuartango, Lantaron, Legutio, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Donemiliaga, Gaubea, Harana, Zanbrana eta Gesaltzako Udala partzuergokoak diren udalerrietako kontzejuetan 2024ko ekitaldiko lehen hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tasen kobratze-epeak:

A.) Epe boluntarioa: 2024ko abuztuaren 13etik urriaren 14ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2024ko abuztuaren 13an.

B.) Kobratzeko epe exekutiboa: 2024ko urriaren 14etik aurrera hasiko da epe exekutiboa, erre-kargu exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2024ko uztailaren 8a

Presidentea

JOSEAN GALERA CARRILLO